


F U N T S E Z K O B A L I A B I D E A K

Gure ideia aurrera atera ahal izateko, hainbat baliabide dira beharrezkoak. Horiek aukera emango digute proiektua funtzionatzeko, ez bakarrik diruaren aldetik, baita laguntza intelektualaren aldetik. Funtsezko elementuak aukeratuko ditugu gure enpresari ahalbidetzen diotenak balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea.

Enpresaren funtsezko baliabideak horrela sailkatuko ditugu:

➤ **Baliabide fisikoak:**

Alokatu lokala denda fisiko moduan erabiltzeko, ordenagailuak (I.P.E), telefonoa, kutxa, altzariak, materiala (aluminioa), google maps sistema (chip) eta makila bibratzeko sistema bibratorioa (esternalizazioa: azken bi hauek hornitzaileak inplantatuko dituzte gure makilan), kolore zuria eta berdea makilak tintatzeko, folletoak egitea publizitatea egiteko, makila hartzeko euskarria (mangoa), makilaren beheko partean goma modukoa jartzea (lurrarekin talka ez egiteko makila zuzenean), kargatzeko erabiliko ditugu plaka solar malguak (makilan gai direnak jartzeko), eta makila kargatzeko beste modua, kargadore normala eta saltzea denda fisiko eta webgunearen bitartez.



➤ **Baliabide intelektuala eta giza baliabideak:**

Leizadi webgunea sortzeko duen imaginazioa eta abilezia (oso ona da dena ondo antolatzen) eta denda fisikoan kontratatutako langileekin oso pertsona alaia eta atsegina baita (inpresio ona emango du bezeroengan), eta Iriaren gaitasuna ideia garatzeko eta makilaren diseinua pertsonalizatua sortzeko duen kreatibitatea.



Iraide eta Jonek duten gaitasuna ordenagailuekin eta hornitzaileekin akordio formaletara ailegatzeko (esternalizazioari buruz, lokalari buruz, materiala lortzeko enpresarekin harremanetan jartzea...) gainera denda fisikoan kontratatuko ditugun langileak aukeratuko dituzte, begi ona baitute pertsona efizienteak aukeratzen.



Luciak sorrarazten duen konfiantza eta lasaitasuna bezeroengan, ahalbidetuko dio beraiekin telefonoz eta fisikoki hitz egitea akordioetara ailegatzeko modu zintzo batean eta tratu ona ematen bezeroei, komunikatzeko gaitasun asko baitauka, eta Leizadiri webgunearekin eta denda fisikoan lagunduko dio, kontratatutako langileekin batera, noski.

Antolaketa guztien artean egingo dugu, oso ondo antolatzen baikara eta bakoitzak zeregin bat izango du bere abilezien arabera, hau da, esandako aurrekoarekin.

➤ **Finantza-baliabideak:** Patenteak, maileguak eta aurrezkiak (herentzia eta loteria tokatu zaigu ere)

